



Euskararen Txanda 2020

*Bilbon arreta euskaraz eskaintzen
duten merkataritza
establezimenduak identifikatzeko
ekimena*



Aurkibidea

1

Helburua, testuingurua eta metodologia

3. orrialdea

2

Ekimenean parte hartu ahal izateko baldintzak

4. orrialdea

3

Emaitzak

5. orrialdea

3.1

Establezimendu euskaldunak eta ekimenarekin bat egin dutenak

5. orrialdea

3.2

Identifikazio euskarriak: markaren banaketa

11. orrialdea

3.3

Establezimenduetako langileen euskara-maila

13. orrialdea

3.4

Establezimenduetako hizkuntza paisaia

16. orrialdea

Eranskina:

Egitasmoarekin bat egin duten establezimenduen irudiak (adibide batzuk)

18. orrialdea

1

Helburua, testuingurua eta metodologia

Euskararen Txanda ekimena Bilboko Udala Biribilko egitasmoaren baitan garatzen ari den proiektua da.

Ekimen honen helburu nagusia, Bilboko merkataritza sektorean bezero eta merkataria euskaldunen artean, euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, bezeroei euskaraz hitz egiteko aukera ematen dieten establezimendu euskaldunak ikur/marka bereizgarri baten bidez identifikatu dira, beti ere, establezimenduek hala nahi izan badute.

Izan ere, geroz eta gehiago dira euskaraz hitz egiten dakiten herritarrak. Bezero horien aktibazioa sustatu eta erraztu nahi da, Bilbon euskaraz egiteko aukera ematen dieten establezimenduak azaleratuz.

Bestalde, gizartea eta erakundeak euskararen normalizazioaren alde ematen ari diren urratsei jarraipena eman nahi zaie merkataritza esparruan eta horretarako establezimendu euskaldunek aukera oso aproposa eskaintzen dute.

Horrez gain, bezero euskaldunei eskainitako zerbitzu komertziala hobetu nahi da: euren erosketa esperientzia atseginagoa izatea, gertutasuna eta tokikotasuna erakustea, eskainitako arretaren kalitatea hobetzea; azken finean, euskara bezeroak erakarri eta fidelizatzeko tresna izatea.

2020ko uztailean zehar, Bilboko merkataritza establezimendu euskaldunak identifikatu eta Euskararen Txanda ekimena aurkezteko landa-lana burutu zen Bilboko hiri osoan. 2019an Bilboko establezimendu guztien identifikaziorako egindako landa-lan zabalean jasotako informazioa izan zen landa-lan horren abiapuntua. Zehazki, aurreko landa-lan zabalean hizkuntzarekiko ondorengo irizpidea betetzen zuten establezimenduak bisitatu dira: establezimenduan enplegatutako langileen erdia baino gehiago euskalduna izatea (euskaraz ongi hitz egiteko gaitasuna izatea). Irizpide hori betetzen duten establezimenduei “Euskararen Txanda” ekimenean parte hartzeko gonbitea luzatu zaie (establezimenduak horretarako baldintzak betetzen dituela ziurtatuta aldez aurretik).

2

Ekimenean parte hartu ahal izateko baldintzak

Ekimen honetan parte hartu nahi duten establezimenduek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

Bezeroei arreta eskaintzen dieten **langileen erdiek (%50ek) ala gehiagok euskaldunak** izan behar dute, hau da, euskaraz ondo hitz egiteko gaitasuna izan behar dute.

Ekimenarekin bat egiten duten establezimenduek, **Euskararen Txanda ikurra/marka ipini** behar dute ageriko toki batean, edozein bezerok erraz ikusi eta identifikatzeko moduan. Ahal dela, establezimenduko atean edo erakusleihoan jartzekoa den Euskararen Txanda eranskailua jarriko dute, kaletik ikusteko moduan.

Ekimenarekin bat egiten duten establezimenduetako langileek, ondoko **hizkuntza konpromisoak onartu eta aplikatu** behar dituzte:

LANGILE GUZTIEK, **euskaraz egingo diete lehen eta azken agurra** bezeroei (ala gutxienez, ele bietan).

LANGILE EUSKALDUNEK, euskaraz egiten edo erantzuten duten bezeroei, **euskaraz eskainiko diete arreta osoa**.

LANGILE ERDALDUNEK, **euskararekiko begirunea** adierazi behar dute, ondorengo irizpideak aplikatuz:

- > Euskaraz egin nahi duten bezeroei, langile euskaldun batengana joateko aukera eskaintzea, euskara erabiliz.
- > Langile erdalduna bakarrik badago, euskaraz egin nahi duten bezeroei egoera azaldu eta gaztelaniaz hitz egiteko eskatzea, euskara erabiliz.

Ekimenarekin bat egiten duten **establezimenduen sustapena egiteko aukera eskainiko** zaie arduradunei. Horretarako, nahi badute, ondoko informazioa emateko eskatuko zaie: establezimenduaren oinarriko identifikazio-datuak zabaltzeko baimena emateko eskatuko zaie (izen komertziala, logotipoa-marka, jarduera-adarra, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, webgunea, sare sozialak...), ekimenean parte hartzen duten establezimenduen erreferentzia zehatzak eskaini eta horien zabalpena egiteko.

Ekimenarekin bat egiten duten establezimenduei, erabiltzen dituzten ageriko testu komertzialak gaztelaniatik euskarara itzultzeko **doako itzulpen zerbitzua** eskainiko zaie.

3 *Emaizak*

3.1 *Establezimendu euskaldunak eta ekimenarekin bat egin dutenak*


Biribilko egitasmoaren baitan, 2019an Bilboko establezimendu guztien identifikaziorako egindako landa-lan zabalean, langileen euskara gaitasunari buruz jasotako informazioa baliatu da establezimendu euskaldunak identifikatzeko.

Hain zuzen ere, 2019an identifikatutako establezimendu euskaldunak banan-banan bisitatu dira datuak eguneratzeko eta 2020an, 366 izan dira, langileen erdia gutxienez euskaldunak dituzten establezimenduak

Langileen erdiak euskaldunak dituzten establezimenduei “Euskararen Txanda” ekimenarekin bat egiteko aukera eskaini zaie. Horretarako, batetik, aurretik aipaturiko hizkuntza konpromisoak onartu eta aplikatzeko eta, bestetik, ekimenari dagokion marka ipintzeko eskatu zaie, bezeroek ikusteko moduan.

Ekimenean parte hartzeko baldintza betetzen duten 366 establezimenduetatik % 76k egin dute bat ekimenarekin (279 establezimenduk).

1. Grafikoa. Ekimenean parte hartzeko baldintza betetzen duten establezimenduetatik, bat egin duten establezimenduak(%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Establezimenduen ia laurdena izan dira ekimenean parte hartu nahi izan ez dutenak (87 establezimendu zehazki). Egitasmoan parte ez hartzeko adierazitako arrazioen artean ondorengoak aipatu dituzte:

- Ekimenean parte hartzeko erabakia hartu behar duen pertsonaren edo erakundearen erantzunik eza (arduradunekin harremanetan jartzeko ezintasunaz; erabakia beste toki batean hartu beharra –frankiziak, banaketa kate handietako establezimenduak...)
- Establezimenduarenak ez diren markak/ikurrak ez ipintzeko politika (komunikaziorako barne-arauak...)
- Langileen euskara maila behar bestekoa ez izateak (euskaraz egiteko zailtasunak) dakartzan arriskuak: kalitatezko zerbitzua eskaintzeko zailtasun handia, bezero euskaldunengan beteko ez diren espektatibak sortzea...
- Baldintzak bete arren, epe laburrean negozioan aurreikusten diren aldaketak: erretiroa hartzea, negozioa ixtea edo eskualdatzea...
- Langileen erdia baino gehiago euskaldunak izan arren, zenbait momentutan bezeroekin harremanetan dauden langileen artean euskaldunik ez izatea (txandengatik, lanaren antolaketarengatik....)
- “Neutraltasun” linguistikoa agertu nahia: hizkuntzen inguruan ñabardurak agertzeko beharrik ez ikustea.

Euskararen Txanda ekimenarekin bat egin eta euren sustapena egiteko, euren identifikazio-datuak zabalteko baimena eman duten establezimenduen kopurua altua izan da: 249 establezimenduk sinatu dute baimena (baldintzak betetzen dituztenen % 89k). 30 establezimenduk, egitasmoarekin bat egin arren, ez dute establezimenduaren sustapena egiteko baimenik eman.

1. Taula. Ekimenean parte hartzeko baldintza betetzen duten establezimenduetatik, ekimenarekin bat egin duten establezimenduak eta establezimenduaren sustapena egiteko baimena eman duten establezimenduak.


	Kopurua	%
Langileen %50 euskaldunak, konpromisoak onartu	279	76,2
Baimena eman dute	249	68,0
Ez dute baimena eman	30	8,2
Langileen %50 euskaldunak, baina ez ditu konpromisoak onartu	87	23,8
Guztira	366	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Establezimenduen kokapena, auzoen arabera

“Euskararen Txanda” ekimenarekin bat egin duten establezimenduek Bilboko auzo desberdinetan duten kokapena aztertuta, Bilboko erdigunean kokatutakoak nagusitzen direla ikusten da (104 establezimendu, % 37); ondoren, Zazpi Kaleetan daudenak (56 establezimendu, % 20), eta hirugarrenik, Santutxu-Otxarkoaga-Txurdinaga-Bolueta eremukoan kokatzen direnak (30 establezimendu, % 10).

2. Grafikoa. Ekimenarekin bat egin duten establezimenduak, establezimendua kokatzen den Bilboko auzo edo barrutiaren arabera (establezimendu kopurua).



Iturria: Siadeco, 2020.

Establezimenduen tamaina, langile kopuruaren arabera

Ekimenarekin bat egin duten establezimenduen langile kopurua aztertuta, oro har, establezimendu txikiak direla esan daiteke: establezimenduen % 85ek (237 establezimenduk) 3 langiletik behera dituzte (1 eta 3 langile artean). Horien artean 2 eta 3 langile arteko establezimenduak nagusitzen dira: 160 establezimendu (% 57), eta langile bakarreko establezimenduak 77 dira (% 28).

2. Taula. Ekimenarekin bat egin duten establezimenduak, langile kopuruaren arabera.

	Kopurua	%
Pertsona bat	77	27,6
2-3 pertsona	160	57,3
4-6 pertsona	34	12,2
7 pertsona edo gehiago	7	2,5
Zehaztu gabe	1	0,4
Guztira	279	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Establezimenduen jarduera adarra

Establezimenduen jarduera adarrari dagokionez "Euskararen Txanda" egitasmoarekin bat egin duten 104 establezimendu arropa-denda, lurindegia, bitxi-denda, optika, etab.-en taldean sailkatzen diren establezimenduak dira (% 37). Horien artean, arropa eta oinetako dendak dira ugariak (43 establezimendu) eta jarraian drogeria, lurindegia eta farmaziak (21 establezimendu). 13 establezimendu erloju-dendak edo bitxi-dendak dira, 6 optika eta 20 bestelako produktu espezializatuak saltzen dituzte.


Elikadura dendak dira "Euskararen Txanda" egitasmoko 65 establezimendu (% 23). Horietatik 13 harategi edo urdaitegiak dira, 12 okindegi edo gozotegiak, 6 fruta eta barazki dendak, 3 arrandegiak, eta gainontzekoak bestelako janari eta tabakoetan sailkatzen dira (31 establezimendu).

Bestelako zerbitzuetako 56 establezimendu daude: 5 artikuluen konponketakoak, 4 ostalaritza establezimenduak eta 47 bestelako zerbitzu gisa sailkatuak (bidaia agentziak, albaitaritza, estetika zentroak, fisioterapia, ile-apaindegiak, ortopediak, etab.).

Kultura eta aisialdirako espezializatutako artikuluen establezimenduak 29 dira: 17 liburu-denda edo paper-denda, 8 kirolerako artikulak saltzen dituzten establezimenduak eta 4 kultura eta aisialdirako artikulak saltzen dituztenak (musika, jostailuak...).

24 establezimendu etxerako artikuluetan espezializatuta daude

3. Grafikoa. Ekimenarekin bat egin duten establezimenduak, jarduera adarraren arabera (establezimendu kopurua).




Iturria: Siadeco, 2020.

Establezimenduen asoziazionismo maila

Egitasmoan parte hartu duten establezimenduen asoziazionismo-maila aztertuta, ikus daiteke Bilboko merkatarien elkarteren bateko kide diren establezimenduak 100 direla (egitasmoan parte hartu dutenen % 36).

4. Grafikoa. Egitasmoarekin bat egin duten establezimenduetatik Bilboko Merkatarien Elkarteren bateko kide diren establezimenduak (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

3. Taula. Egitasmoarekin bat egin duten establezimenduetatik Bilboko merkatarien elkarteren bateko kide diren establezimenduak.

	Kopurua	%
Bilboko Merkatarien Elkarteren bateko kide da	100	35,8
Ez da Bilboko Merkatarien Elkarteren bateko kide	153	54,8
Ed/Ee	26	9,3
Guztira	279	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

3.2

Identifikazio euskarriak: markaren banaketa


Ekimenarekin bat egin duten establezimenduei, “Euskararen Txanda” markarentzat diseinatu diren euskarriak eskaini eta establezimenduan ipintzeko eskatu zaie identifikatzeko

Marka, hiru euskarri desberdinetan eskaini zaie: eranskailua (atean edo erakusleihoan ipintzekoa); peana (barruko mostradore, apal edo bestelako azalera batean ipintzekoa); eta zintzilikatze euskarria. Horiez gain, Zabalik-Itxita euskarria eskuratzeko aukera ere izan dute establezimenduek.

Atean edo erakusleihoan ipintzeko
eranskailu bat



Establezimendu barruan
ipintzeko **peana** bat



Establezimendu barruan
zintzilikatze **euskarri** bat




Zabalik-itxita
euskarra



Egitasmoarekin bat egin duten ia establezimendu guztiek eskatu dute “Euskararen Txanda” eranskailua (% 96k): Bilboko 269 establezimendu eranskailu hori aukeratu dute identifikatzeko.


157 establezimenduk (% 56k) barruan ipintzeko peana eskatu dute; eta 24 establezimenduk (% 8k) zintzilikatze euskarria.

5. Grafikoa. Euskarriak eskatu dituzten establezimenduak (% eta establezimendu kopurua)



Iturria: Siadeco, 2020.

6. Grafikoa. Euskarriak eskatu dituzten establezimenduak, jarduera-adarraren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

3.3

Establezimenduetako langileen euskara-maila

Ekimenarekin bat egin duten establezimenduen ia hiru laurdenak euskaraz ondo hitz egiten duen arduraduna dauka (207 establezimenduk, % 74k). Beste 49 establezimendutako arduradunek ondo ulertzen dute euskaraz, baina nekez hitz egiten dute (% 18). Euskaraz ez dakiten arduradunak dituzten establezimenduak 21 dira (% 8) (arduradunak euskaraz gutxi ulertu eta ez du hitz egiten).

4. Taula. Ekimenarekin bat egin duten establezimenduetako arduradunen euskara-maila.

	Kopurua	%
Ondo hitz egiten du euskaraz	207	74,2
Ondo ulertzen du, baina nekez hitz egiten du	49	17,6
Ez daki euskaraz (gutxi ulertzen du eta ez du hitz egiten)	21	7,5
Ed/Ee	2	0,7
Guztira	279	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Euskaraz dakiten arduradunen ehunekoa batez bestekoa baino altuagoa da erdiguneko establezimenduetan (%83), San Frantzisko-Bilbo Zaharra-Zabala-San Adrian-Abusu-Miribillakoetan (%100); eta Basurtu-Zorrotza-Olabegakoetan (%77)

5.Taula. Egitasmoarekin bat egin duten establezimenduetako arduradunen euskara-maila, jarduera- adarraren arabera.

	Ondo hitz egiten du euskaraz		Ondo ulertzen du, baina nekez hitz egiten du		Ez daki euskaraz (gutxi ulertzen du eta ez du hitz egiten)		Ed/Ee		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Zentroa (Abando-Indautxu)	86	82,7	12	11,5	6	5,8	0	0,0	104	100,0
Errekaldeberri-Larraskitu-Masustegi-Peñascal	5	55,6	2	22,2	2	22,2	0	0,0	9	100,0
San Frantzisko-Bilbo Zaharra-Zabala-San Adrian-Abusu-Miribilla	15	100,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	15	100,0
Santutxu-Otxarkoaga-Txurdinaga-Bolueta	19	63,3	7	23,3	3	10,0	1	3,3	30	100,0
Alde Zaharra-Zazpi Kaleak	41	73,2	8	14,3	7	12,5	0	0,0	56	100,0
Atxuri-Solokoetxe-Iturralde-Begoña	6	66,7	3	33,3	0	0,0	0	0,0	9	100,0
Uribarri	7	70,0	1	10,0	1	10,0	1	10,0	10	100,0
Ametzola-Iralabari	3	50,0	3	50,0	0	0,0	0	0,0	6	100,0
Basurtu-Zorroza-Olabegaga	10	76,9	2	15,4	1	7,7	0	0,0	13	100,0
Deustu-Arangoit	14	60,9	8	34,8	1	4,3	0	0,0	23	100,0
San Inazio-Ibarrekolanda	1	25,0	3	75,0	0	0,0	0	0,0	4	100,0
Guztira	207	74,2	49	17,6	21	7,5	2	0,7	279	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Jarduera-adarrari dagokionez hiru jarduera-adarretan da batez bestekoa baino altuagoa euskaraz dakiten arduradunen ehunekoa: elikagai produktuetan, edarrietan eta tabakoan espezializatutako establezimenduetan (%75); etxerako artikuluetan espezializatutakoetan (%79); eta bestelako artikuluetan espezializatutakoetan (%78) (jantzi-dendak, oinetako-dendak, lurrin-dendak, botikak)

6. Taula. Egitasmoarekin bat egin duten establezimenduetako arduradunen euskara-maila, jarduera-adarraren arabera.

	Ondo hitz egiten du euskaraz		Ondo ulertzen du, baina nekez hitz egiten du		Ez daki euskaraz (gutxi ulertzen du eta ez du hitz egiten)		Ed/Ee		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Elikagai produktuetan, edaritan eta tabakoan espez. establezimenduak	49	75,4	11	16,9	4	6,2	1	1,5	65	100,0
Inform. teknologiarako eta komunikaziorako ekipoetan espez. establezimenduak	0	0,0	1	100,0	0	0,0	0	0,0	1	100,0
Etxerako artikuluetan espez. establez (burdindegia, oihalak, etxetresna elek, altzariak...)	19	79,2	4	16,7	1	4,2	0	0,0	24	100,0
Kultur eta aisialdirako artikuluetan espez. establez. (liburu-dendak, kirol-dendak...)	19	65,5	8	27,6	2	6,9	0	0,0	29	100,0
Bestelako artikuluetan espez. establez. (jantzi-dendak, oinetako-dendak, lurrin-dendak, botika, bestelakoak...)	81	77,9	13	12,5	9	8,7	1	1,0	104	100,0
Bestelakoak (zerbitzuak, konponketa, ostalaritza)	39	69,6	12	21,4	5	8,9	0	0,0	56	100,0
Guztira	207	74,2	49	17,6	21	7,5	2	0,7	279	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Guztira 648 langileren euskara gaitasunari buruzko informazioa jaso da. Horietatik 487 dira euskaraz atenditzeko gai direnak: 397 langilek arazorik gabe atenditu dezakete, eta 90 langilek arazo txikiekin baina euskaraz atenditu dezakete.

Bilboko auzoen arabera, euskaraz atenditzeko gaitasun altuena San Inazio-Ibarrekolanda eta Atxuri-Solokoetxe-Iturralde-Begoña auzoetako establezimenduetako langileek dute (% 90 eta % 83, hurrenez hurren). Gaitasun baxuena berriz Errekaldeberri-Larraskitu-Masustegi-Peñascal auzoko establezimenduetako langileek (% 61).

Jarduera-adarrari dagokionez, etxerako artikuluetan espezializatutako establezimenduetan (burdindegia, oihalak, etxetresna elek, altzariak...) da baxuena euskaraz atenditzeko gaitasuna (% 67).

7. Taula. Ekimenarekin bat egin duten establezimenduetako langileek bezeroei arreta euskaraz eskaintzeko duten gaitasuna, auzoaren arabera

	Jendaurreko langileak	Euskaraz arazorik gabe atenditzeko gai	Arazo txikiekin baina euskaraz atenditzeko gai	Euskaraz atenditzeko gai	Euskaraz atenditzeko gai (%)
Zentroa (Abando-Indautxu)	255	158	33	191	74,9
Errekaldeberri-Larraskitu-Masustegi-Peñascal	18	11	0	11	61,1
San Frantzisko-Bilbo Zaharra-Zabala-San Adrian-Abusu-Miribilla	33	21	4	25	75,8
Santutxu-Otxarkoaga-Txurdinaga-Bolueta	65	34	11	45	69,2
Alde Zaharra-Zazpi Kaleak	139	92	16	108	77,7
Atxuri-Solokoetxe-Iturralde-Begoña	12	7	3	10	83,3
Uribarri	20	12	2	14	70,0
Ametzola-Iralabarri	13	8	1	9	69,2
Basurtu-Zorroza-Olabeaga	28	17	4	21	75,0
Deustu-Arangoiti	55	31	13	44	80,0
San Inazio-Ibarrekolanda	10	6	3	9	90,0
Guztira	648	397	90	487	75,2

Iturria: Siadeco, 2020.

8. Taula. Egitasmoarekin bat egin duten establezimenduetako langileen euskaraz atenditzeko gaitasuna, establezimenduaren jarduera-adarraren arabera.

	Jendaurreko langileak	Euskaraz arazorik gabe atenditzeko gai	Arazo txikiekin baina euskaraz atenditzeko gai	Euskaraz atenditzeko gai	Euskaraz atenditzeko gai (%)
Elikagai produktuetan, edaritan eta tabakoan espez. establezimenduak	134	85	18	103	76,9
Inform. teknologiarako eta komunikaziorako ekipoetan espez. establezimenduak	1	0	1	1	100,0
Etixerako artikuluetan espez. establez (burdindegia, oihaletak, etxetresna elek, altzariak...)	54	29	7	36	66,7
Kultur eta aisialdirako artikuluetan espez. establez. (liburu-dendak, kirol-dendak...)	76	56	7	63	82,9
Bestelako artikuluetan espez. establez. (jantzi-dendak, oinetako-dendak, lurrin-dendak, botika, bestelakoak...)	247	142	43	185	74,9
Bestelakoak (zerbitzuak, konponketa, ostalaritza)	136	85	14	99	72,8
Guztira	648	397	90	487	75,2


Iturria: Siadeco, 2020.

3.4

Establezimenduetako hizkuntza paisaia

Establezimenduetako hizkuntza paisaia aztertuta, establezimenduen %11 dira dena ala gehiena euskaraz dutenak (30 establezimendu). Euskararen eta gaztelaniaren pisua antzekoa da establezimenduen % 29an (80 establezimendu). Hizkuntza paisaia guztia gaztelaniaz edo gehiena gaztelaniaz duten establezimenduen pisua % 54koa da (151 establezimendu: % 34an gehiena gaztelaniaz eta zerbait euskaraz dago eta % 20an dena dago gaztelaniaz).

7. Grafikoa. Ekimenarekin bat egin duten establezimenduetako hizkuntza paisaia idatziaren tratamendua (%).



Iturria: Siadeco, 2020.


9. Taula. Ekimenarekin bat egin duten establezimenduetako hizkuntza paisaia idatziaren tratamendua.

	Kopurua	%
Dena euskaraz	11	3,9
Gehiena euskaraz eta zerbait gaztelaniaz	19	6,8
Euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu	80	28,7
Gehiena gaztelaniaz eta zerbait euskaraz	95	34,1
Dena gaztelaniaz	56	20,1
Besterik (ingelesaz, zehaztu gabe...)	18	6,4
Guztira	279	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Hizkuntza paisaia jarduera-adarraren arabera aztertuta antzematen diren aldeak ez dira oso adierazgarriak: dena ala gehiena euskaraz duten establezimenduen ehunekoak % 8 eta % 17aren artean daude¹. Dena ala gehiena euskaraz duten establezimenduen batez bestekoa %11 da eta horren gainetik aurkitzen diren jarduera-adarrak ondorengoak dira: kultur eta aisialdirako artikulua saltzen dituzten establezimenduak (% 17), etxerako artikulua saltzen dituztenak (% 13) eta bestelako zerbitzuak (% 13). Elikagai produktuak, edariak eta tabakoa saltzen dituzten establezimenduetan, euskararen presentzia batez bestekoaren parekoa da.

8. Grafikoa. Ekimenarekin bat egin duten establezimenduetako hizkuntza paisaia idatziaren tratamendua, jarduera adarraren arabera (%).



Iturria: Siadeco, 2020.

¹ Salbuespena, informazioen teknologiarako eta komunikaziorako ekipoetan espezializatutako establezimenduen jarduerak adarra da, bertan establezimendu bakarra dagoelako.

Eranskina:
Egitasmoarekin bat egin duten
establezimenduen irudiak
(adibide batzuk)















